

2018KO MAIATZAREN 31N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaika.

HILABETEA: Maiatza .

URTEA: Bi mila eta hemezortzi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA
NEKANE ZALDUA ESNAOLA
MIREN ARANTXA ZUFIAURRE GOIKOETXEA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJICA
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

OHARRA: Beasaingo EH BILDU udal taldeko, zinegotzi bat falta da, Hauteskunde Batzorde Zentralak eskatutako pertsonaren alde oraindik kredentziala eman ez duelako.

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, Aitziber Yurrebaso andreak parte hartzen du, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2018ko apirilaren 26ko akta onartzeko proposamena.

2018ko apirilaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko aldagetak ez dagoelako.

2.- ZINEGOTZI KARGUA ONARTZEA: Miren Arantxa Zufiaurre Goikoetxea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Zinegotzi kargua hartzeko beharrezkoa da aurkeztea bateraezintasun eta ondasunen aitorpena. Miren Arantxa Zufiaurre Goikoetxea andreak, aurkeztu ditu eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza har dezake. Horretarako, legalki ezarrita dagoen zine-egite formula baieztatu behar du."

Alkate jaunak, zin-egite formula irakurri dio, zinegotzi kargua hartu behar duenari, hau da: "Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?"

Miren Arantxa Zufiaurre Goikoetxea andreak: "Bai. Legeak hala behartuta, zin egiten dut."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Beraz, Miren Arantxa Zufiaurre Goikoetxea andreak, Beasaingo Udalaren zinegotzi karguaren jabetza hartu du eta EAJ-PNV udal taldearen kide izatera pasatuko da."

3.- KREDITU ALDAKETA. Kreditu transferentzia. 3. Zenbakia duen espedientea

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

"GAIA.- Kreditu Aldaketa, 3. Kreditu Transferentzien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 3. Kreditu Transferentzien bidez 7.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldagetak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

3.- Kreditu aldaketa honen bidez izendun dirulaguntza berria ezartzen denez, Aurrekontuko Dirulaguntzen Eranskina aldatzea berau txertatuz.”

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0241.226.231.50.06	Berdintasun jarduerak	30.000,00	7.000,00	23.000,00
GUZTIRA ...		30.000,00	7.000,00	23.000,00

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0241.481.341.00.01	GOIERRI GORRI FUTBOL KLUB: Dirulaguntza	0,00	7.000,00	7.000,00
GUZTIRA ...		0,00	7.000,00	7.000,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- INBENTARIOA. 2017-12-31rekiko inbentarioa eguneratzea. Onespenez proposamena.

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

“GAIA: INBENTARIOA

2.017ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzea proposatzen dio Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari:

UDALA / AYUNTAMIENTO	Kostu historiko Coste histórico	Amortizazio Amortizac.	Neto kontablea/ Neto contable
ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES	64.909.044,38 €	21.412.354,54 €	43.496.689,84 €
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	19.820.192,29 €	6.197.915,04 €	13.622.277,25 €
TERRENOAK / TERRENOS	12.125.823,59 €		12.125.823,59 €
JOLASTOKIAK / PARQUES	3.436.155,94 €	1.718.575,74 €	1.717.580,20 €

BIALAK / VIALES	26.002.485,27 €	11.830.066,44 €	14.172.418,83 €
LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS	32.628,27 €		32.628,27 €
AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA	3.491.759,02 €	1.665.797,32 €	1.825.961,70 €
ERRENTA ESKUB. / DERECHOS REALES	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIA / VALORES MOBILIR.	11.609.709,22 €		11.609.709,22 €
IBILGAILUAK / VEHICULOS	203.876,53 €	145.390,40 €	58.486,13 €
MOBLERIA / MOBILIARIO	3.148.149,93 €	2.264.779,20 €	883.370,73 €
ONDAS. ESKUB. BIHUR. / CONC. ADMIN.	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA / TOTAL	82.215.215,29 €	23.822.524,14 €	58.392.691,15 €
ERAIK. ERABIL LAGAP. / INM. CEDIDOS	4.219.461,67 €		4.219.461,67 €
	86.434.676,96 €	23.822.524,14 €	62.612.152,82 €

KIROLDEGIA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	439.165,89 €	25.095,70 €	414.070,19 €
INSTALAZIOAK / INSTALACIONES	107.966,86 €	34.928,17 €	73.038,69 €
MOBLERIA, INFORM. EK./MOBILIARIO, EQUIP. INF.	39.757,13 €	10.236,47 €	29.520,66 €
BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS	100,00 €		100,00 €
GUZTIRA / TOTAL	586.989,88 €	70.260,34 €	516.729,54 €

MUSIKA ESKOLA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA / MOBILIARIO	152.550,75 €	129.787,45 €	22.763,30 €
GUZTIRA / TOTAL	152.550,75 €	129.787,45 €	22.763,30 €

EUSKALTEGIA

	<i>Kostu historikoa</i>	<i>Amortizazioa</i>	<i>Neto kontablea</i>
MOBLERIA / MOBILIARIO	78.003,11 €	65.589,70 €	12.413,45 €
GUZTIRA / TOTAL	78.003,11 €	65.589,70 €	12.413,45 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- TASAK. 2018-2019 ikasturterako musika eskola eta euskaltegiko tasei hasierako onespenera emateko proposamena.

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordeko proposamena, hots:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2018-2019 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onspena.

Herritarren Batzordeak 2.018ko maiatzaren 24an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasuneiei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkeztzen du ondorengo akordio PROPOSAMENA:

Lehenik.- 2018-2019 ikasturtean Beasaingo Loinatz Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasen eranskina hasiera batean onartzea:

IKASGAIAK / ASIGNATURAS	IKASTURTEKO KOPURUA/ CUOTA CURSO
<i>I. MAILA: Musika Tailerra</i> <i>NIVEL I : Taller Musical</i>	212,50€
<i>I. MAILA: Hastapena</i> <i>NIVEL I: Iniciación</i>	270,00€
<i>II. MAILA: Instrumentua + Musika Lengoaia</i> <i>NIVEL II: Instrumento + Lenguaje Musical</i>	720,00€
<i>II. MAILA: Instrumentua / Akonpainamendua / Kantua</i> <i>NIVEL II: Instrumento/Acompañamiento/Canto</i>	540,00€
<i>II. MAILA: M. Lengoaia+Pandero / Kantu taldea</i> <i>NIVEL II: Lenguaje Musical + Pandero / Canto grupal</i>	535,00€
<i>II. MAILA: M. Lengoaia</i> <i>NIVEL II: Lenguaje Musical</i>	270,00€
<i>II. MAILA: Trikitixa</i> <i>NIVEL II: Trikitixa</i>	465,00€
<i>III. MAILA: Instrumentua + Gai Teorikoa</i> <i>NIVEL III: Instrumento + Materia Teórica</i>	765,00€
<i>III. MAILA: Instrumentua/Akonpainamendua/Kantua/Errefortzu Gaia*</i> <i>NIVEL III: Instrumento/Acompañamiento/Canto/*Materia Reforzada</i>	567,50€
<i>III. MAILA: Trikitixa</i> <i>NIVEL III: Trikitixa</i>	487,50€
<i>III. MAILA: Gai Teorikoak / Informatika</i> <i>NIVEL III: Materia Teórica / Informática</i>	270,00€
<i>IV. MAILA: Pop-Rock taldeak</i> <i>NIVEL IV: GrupoS Pop-Rock</i>	60,00€

IV. MAILA: Abesbatza NIVEL IV: Coro	60,00€
Panderoa Pandero	337,50€
Kantua taldean Canto grupal	250,00€
Piano Akonpainamendua (60´) Piano Acompañamiento (60´)	830,00€
Piano Akonpainamendua + Gai teorikoa Piano Acompañamiento + Materia Teórica	1000,00€
MATERIALA /MATERIAL	14,50€
IZENEMATEA 2019-2020 ikasturterako INSCRIPCIÓN para el curso 2019-2020	45,50€

- Familia partaide kopuruarengatik dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak
 2. partaideak: kuota osoak
- Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

Bigarren.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 lanegunez egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren.- Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitarapenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.”

“GAIA: Beasaingo Udal Euskaltegian 2018-2019 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespina.

Herritarren Batzordeak 2.018ko maiatzaren 24an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du UDAL EUSKALTEGIKO FUNDAZIO BATZORDEAK 2018-2019 ikasturtean Beasaingo Udal Euskaltegiko irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasei buruz hartutako akordio-proposamena.

Ondoren, eranskin zehazten dira Beasaingo Udal Euskaltegian 2018-2019 ikasturtean ikastaro desberdinei aplikatuko zaizkien tasak eta ordainketako baldintzak

Ikastaroak / Cursos	Ordu kop. / N° horas	Prezioa materiala barne / Precio material incluido
Astean 10 orduko ikast./Curso 10 horas	320	438€

<i>semanales 2018/10-2019/06</i>		
<i>Astean 8 orduko ikast./ Curso de 8 horas semanales 2018/10-2019/06</i>	<i>281</i>	<i>388€</i>
<i>Azterketei begira osatutako taldeak /Cursos para preparación de exámenes</i>	<i>120</i>	<i>180€</i>
<i>Etorkinentzako AISA ikastaroak / Curso AISA para inmigrantes</i>	<i>60</i>	<i>34€</i>
<i>Autoikaskuntza ikastaroak tutorearekin / Cursos de auto-aprendizaje con tutor/a 2018/10-2019/06</i>	<i>192</i>	<i>430€</i>
<i>Udako ikastaroa /Curso de verano 2019/06-2019/07.</i>	<i>80</i>	<i>116€</i>
<i>Udako ikastaroa /Curso de verano 2019/09-2019/09.</i>	<i>60</i>	<i>90€</i>
<i>4. mailako ikastaroa / Curso de 4º nivel 2018/10– 2019/06</i>	<i>165</i>	<i>502€</i>
<i>Gurasoentzako ikastaroak / Cursos para padres y madres 2018/10-2019/05</i>	<i>80</i>	<i>116€</i>

- *Sor litezkeen bestelako modulutako ikastaroetan, ezarritako orduko tasak aplikatuko dira.*

2018/2019 ikasturtean, orduko 1,29€ kobratuko da ikastaro orokorretan.

4. Mailako ikastaroetan, orduko 3,04€ kobratuko da.

Auto-ikaskuntza ikastaroetan, orduko 2,27€ kobratuko da.

AISA ikastaroetan kopuru finkoa kobratzen da, HABEk ezarritakoa.

Materiala 25,30€. Udako ikastaroan, 12,65€.

A. Ikasleek matrikula ordaintzeko aukera desberdinak dauzkate:

- 1. Matrikula osoa ikastaroa hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu.*
- 2. Matrikula-kopuruaren erdia ikastaroa hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean egin.*
- 3. Matrikula-kopurua hileko 8 kuotatan banatuta ordaindu.*

4. *Beasainen erroldatutako ikasle langabetuek ez dute matrikula ordainduko, aldez aurretik ezarritako baldintzak betez gero . Baldintza horiek bete ezean, matrikula kobratuko zaie .*

B. 1. Udako ikastaroetan, ikastaroa hasi eta lehenengo 7 egunetan ordaindu beharko du.

2. Beasainen erroldatutako ikasle langabetuek, kasu honetan ere, ez dute matrikula ordainduko, aldez aurretik ezarritako baldintzak betez gero. Baldintza horiek bete ezean, matrikula kobratuko zaie.

C. 1. Ikasturte amaierako beka jasotzeko eskubidea izango dute Beasainen erroldatuta dauden ikasleek eta diru-laguntza horiek emateko, Beasaingo Udal Euskaltegiko diru-laguntzen araudian jasotakoa aplikatuko da.

2. Ikasleak HABEtik ere jaso dezake diru-laguntzarik. Horretarako, euskara mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

¹ Baldintzak hauek dira: 1. Asistentzia %90ekoa izatea (Justifikatu daitezkeen faltak LANBIDEK deitu izana edo medikuarengana joan izana) 2. Ikastaroa uzteko onar daitezkeen arrazoiak betetzea, penalizaziorik gabe.

¹ Ikastaroa lanpostua lortuz gero eta justifikatuz gero soilik utz daiteke. Ikastaroa justifikatu gabe utziz gero, kontu korrontetik matrikula osoa kobratuko da. Ikasleak lana lortuz gero, eta ikastaroan jarraitu nahi izanez gero, zati proportzionala kobratuko zaio, hiru hilabeteka kalkulatuta eta baremo honen arabera: Klase orduen %10 bada, ez da kobratuko, langabetutzat joko da. Klase orduen %25 bada, %25 kobratuko zaio. Klase orduen %50 bada, %50 kobratuko zaio. Klase orduen %75 bada, %75 kobratuko zaio eta klase orduen %100 bada, %100 kobratuko zaio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- ORDENANTZAK:

a.- Igartzako multzo monumentua erabiltzeko araudia bertan behera uztea.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hots:

“AURREKARIAK:

- 1. 2013ko uztailaren 4ko datarekin udalak igartzako Monumentu Multzoa erabiltzeko Araudia onartu zuen*
- 2. Denbora horretan Udalak beharrezkoa ikusi du araudia egokitzea gaur egun aplikatzen den modua kontuan hartuta, izan ere, guneen alokairua eta agendaren zuzeneko koordinazioa eta kudeaketa enpresa kudeatzaileak eramatea eskatzen du.*
- 3. Igartzako Monumentu Multzoa kudeatzeko eta ustiatzeko lizitazioko Baldintza Pleguetan jaso dira Igartzako guneen erabilerarako baldintzak.*

Honen ondorioz, Herritarrak Batzordeak 2018ko martxoaren 14ko datarekin Kultura eta euskara koordinatzaileak egindako txostena kontutan izanda, Udalbatza Osoari ondorengo erabakia onartzea proposatzen dio:

Lehenik. *2013ko irailaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako eta egun indarrean dagoen Igartzako Monumentu Multzoko guneak erabiltzeko araudia bertan behera uztea.*

Bigarrena. *Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, adieraziz beraren aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsiak.*”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da ezer berezirik adierazi

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

b.- Testuaren errebisio eta zuzenketa, genero ikuspegitik, ondorengo ordenantzena:

- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantza.
- Hiritar izaerako herri bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hots:

“GAIA: Ordenantzetako hizkuntzaren errebisioa, genero ikuspegitik; edukia aldatu gabe.

AURREKARIAK:

1. 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoari jarraituz, HIZKUNTZAK EZ SEXISTA izan behar du.
2. Beasaingo Udalean, indarrean dauden Ordenantzak berrikusteko prozesua martxan jarriko da, genero ikuspegitik hizkuntza egokituz; edukia aldatu gabe.

PROPOSAMENA:

Antolakuntza batzordeak Udal Osoko Bilkurari, ondorengo Ordenantzen egokitzapena onartzea eskatzen dio

- “Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza”.
- “Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal- ordenantza”.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea hau da: Diru-laguntzak emateko orduan Beasaingo Udalak eta bere Organismo Autonomoek jarraitu behar duten prozeduraren arautegi orokorra finkatzea.

2. artikulua. Eremua.

Beasaingo Udalak eta bere Organismo Autonomoek pertsona nahiz herri-erakunde edo erakunde pribatu baten alde jarritako edozein herri-fondori aplikatuko zaio araudi hau, gizarte-interesa duen edo onurazko jarduerak sustatzeko edo herri-helburu edo gizartekoak lortzeko beren eskumen-eremuaren barruan

3. artikulua. Diru-laguntzak emateko organo eskuduna.

Diru-laguntza ematea organo eskudunak erabakiko du, Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeak eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren 5.2 artikulua xedatutakoak kontuan izanik.

4. artikulua. Onuradunak.

Herri-fondoen onuradun izango da: Diru-laguntza ematea erabakitzeko arrazoi izan diren jarduerak burutu behar dituen edota diru-laguntza ematea zilegiztatzen duen egoeran dagoena, beti ere Subentzio Lege Orokorraren 13.2 artikuluan xedatutako kausetakoren baten barruan aurkitzen ez bada.

5. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Onuradunak ondoko betebeharrak izango ditu:

- a) Diru-laguntza emateko arrazoi diren jarduerak burutzea.*
- b) Jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak epeen barruan bete direla egiaztatzea.*
- c) Beasaingo Udalak edo bere Organismo Autonomoek egin ditzaketen finantza-kontrol eta egiaztapen-jardunak onartzea.*
- d) Helburu bererako beste administrazio edo herri-erakundeetatik jasotako diru-laguntzen berri ematea Beasaingo Udalari edo bere Organismo Autonomoei.*

Jakinarazpen hau ezagutu bezain pronto egingo da eta nolanahi ere jasotako diru-laguntza erabileraren justifikatu aurretik. Betebehar horiez gain, diru-laguntza ematerakoan baldintza bereziak jarri bazaizkio, haiek ere bete beharko ditu onuradunak.

Aipatutako betebeharrak betetzen ez baditu onuradunak, diru-laguntza ezeztatu egingo da eta hala badagokio jasotako dirua itzuli egin beharko du.

6. artikulua. Diru-laguntzak emateko moduak.

Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidez edo eskarien konparaketaz egingo da. Nolanahi ere, zuzenean eman ahal izango dira ondorengo kasuetan:

- a) Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitakoak.*
- b) Haien emakida edo kopurua Administrazioari ezartzen zaizkionak,*
- c) Lege mailako arau baten bidez. Salbuespen gisa, herri-interesa, gizartekoa, ekonomikoa edo gizatiarra nahiz bestelako arrazoi ongi zirituak egiaztatzen direlarik, jendarteko deialdia egitea zaila gertatzen denetan.*

7. artikulua. Diru-laguntzak izapidetzea.

1. Interesatuaren eskaera, diru-laguntza ematea erabakitzeko beharrezko diren agiri eta informazioekin batera, edota bere kasuan, dagokion batzorde txostengilearen proposamena.

2. Batzorde txostengileak agiriak egiaztatzea.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua zehazten dituen batzorde txostengilearen diru-laguntza emateko proposamena.

Diru-laguntzen kopuruak, bakarrik edo beste batzuekin batera, ezin izango du subentzionatutako jardueren kostua gainditu; diru-laguntza, laguntza, sarrera edo beste baliabide batzuk jasoko direla jakin bezain laister, Udalarai jakinarazi egin beharko zaio, eta, beti ere, jasotako fondoei emandako erabilpena zuritutu aurretik jakinarazi ere.

Batzorde txostengileak ezin izango du diru-laguntzaren emakidaren aldeko proposamenik egin, espedientean, Gizarte Segurantzarekiko eta udal, foru-erakunde edo estatuarekiko, onuradunak duen jarduera-esparruaren arabera, zergekiko betebegar fiskalen ordainketan egunean dagoela egiaztatzen dituen agiriak ez baditu.

4. Aurrekontu-kreditua badagoela eta hori egingo den gastua edo obligazioaren izaerari badagokiola egiaztatuko duen ziurtagiria.

5. Eskuduntzadun organoak hartuko du diru-laguntza emateko erabakia. Erabakian, edo hala dagokionean hitzarmenean, agertuko dira onuradunaz gain, helburua, diru-laguntzaren zenbatekoa, ordainketa-datak eta zuritzeko modua nahiz epea eta

emakida-akordioan aipatu ezean, diru-laguntza emandako urteko ekitaldian agertu beharko dira.

6. Diru-laguntzaren erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta emandako diru-laguntza kontabilitateko AD agirian erregistratuko da.

8. artikulua. Aldaketak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira eta, bereziki, beste administrazio edo herri-erakunde zein erakunde pribatuk emandako diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

9. artikulua. Diru-laguntza ordaintzeko baldintzak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira eta, bereziki, beste administrazio edo herri-erakunde zein erakunde pribatuk emandako diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

10. artikulua. Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak beteak izan beharra.

Diru-laguntza ezingo da ordaindu onuradunak betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela egiaztatzen ez duen bitartean.

Egiaztagiri berririk ez da aurkeztu beharko eskaerarekin batera aurkeztutakoak 6 hilabeteko balio-epea gainditu ez badu.

11. artikulua. Ordainketa aurreratutak.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren izaerak hala eskatuta edo lehiaketa bidez izapidetu behar direnean eta Oinarri Arautzaileetan hala aurreikusten denean, ordainketa aurreratutak egin ahal izango dira, zuriketa egin aurretik diru-laguntzari atxikitako ekin-tzak burutu ahal izateko finantzazio gisa.

Ordainketa aurreratua onartutako diru-laguntzaren guztizkoari dagokiona bada, emakida-akordioak nahitaez zehaztu beharko du aurrerakinaren erabilera zuritzeko epemuga.

12. artikulua. Diru-laguntzaren zuriketa.

Obligazioa ontzat eman eta likidazioa egiteko, ezinbestekoa izango da zuriketa egitea. Horretarako, onuradunek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

1. Jarduera azalduko duen txostena.

2. Diru-sarrera eta gastuen kitapena, lortutako etekina adieraziz eta, horrekin batera, burututako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak edo baliokideak diren agiriak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatutak.

Dena dela oinarri arautzaileek edota dirulaguntza ematearen ekintzak adieraziko dute aurkeztu beharreko froga-agiriak.

Diru-laguntzaren zuriaketa obligazioa onartu aurretik egingo da. Diru-laguntza lehiaketa-araubide bidez ematen bada, froga-agiriak aurkezteko epea Oinarri Arautzaileetan zehaztuko da.

13. artikulua. Frogagirien egiaztapena.

Frogagirien egiaztapena, dagokion batzorde txostengileak egingo du eta, hala badagokio, onespena eman -teknikari arduradun eta batzordeburuaren sinaduraren bitartez- eta 12. artikuluan zehaztutako agiriekin batera espedientearen Kontuhartzaile-tzara igorriko du.

14. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.

Kontuhartzaitzak, kontu-hartzailearen oniritzia duela, kontabilitate-idazketa egin eta ordainketa egiteko izapideei ekingo die.

Ordainketa egiteko unean onuraduna, likido eskagarri eta mugaeguneratutako zorrenatik, Beasaingo Udalaren zordun baldin badaz, Udalak zor horien konpentsazioa egingo du.

15. artikulua. Itzultzea.

Ezohizko kasuren batean diru-laguntza -osorik edo zati bat- aurrerapen modura ematen bada, hartzaileak, ondoko kasu hauetan, jasotako kopurua, berandutze-interesak barne, itzuli egin beharko du hala baldin badagokio:

a) *Frogagiriak aurkezten ez baditu.*

b) *Diru-laguntza, hura emateko hartutako erabakian jarritako helburuak betetzeko erabiltzen ez bada.*

Modu berean, emandako diru-laguntza –Beasaingo Udalak bakarrik edo beste administrazio edo erakunde pribatu zein herri-erakunderen batekin batera emana-, garatutako jardueraren zuzeneko kostua baino handiagoa bada, aldeko diferentzia hori itzuli egin beharko du onuradunak».

HIRITAR IZAERA HERRI-BIDEEN ERABILERA ETA HORIETAKO TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTUKO DITUEN UDAL- ORDENANTZA

“XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskuduntza.

Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (4. eta 25. artikuluek zehazki) Udalerriei Trafiko eta Zirkulazio gaietan ematen dizkien eskuduntzen indarrez eman da.

2. artikulua. Araituko dena.

Ordenantza honek araituko duena, herri barruko bideen trafikoaaren arloko erabilera da eta, era berean, trafikoaaren antolamendua, zaintza eta kontrola, arau-hausteen salaketak eta zigorrak, ibilgailuak ibilgetzeko, kaleetatik kentzeko eta nonbait jasotzeko eta abandonatutako ibilgailuentzat hartu behar diren zuhurtziazko neurriak hartzeko eta haiek gordetzeko.

3. artikulua. Ordenantzaren erabilera esparrua.

Ordenantza honetan agindutakoa, Beasaingo udal-barrutiko bide hiritar guztietan izango da aplikagarri.

I. IDAZPURUA

UDALERRIKO BIDE HIRITARRETA KO TRAFIKOAAREN ANTOLAMENDUARI ETA ZIRKULAZIOARI BURUZKOA K

I. ATALBURUA. OINARRI NAGUSIA K

4. artikulua. Legedia orokorraren zuzeneko ezarpena.

Udal-ordenantza honen osagarri moduan erabiliko da Trafiko, Motoredun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testuategina, urriaren 30eko 6/2015 E. D. Legegilearen bidez onartua. Era berean, haren arauzko xedapenak ere aplikagarri izango dira.

5. artikulua. Trafikoa antolatu eta kontrolatzeko neurriak.

5.1. Udalak trafikoa antolatzeko bidezko irizten dituen neurriak har ditzake, ibilgailu edo oinezko guztien edo jakin batzuen ibiltzeko baldintzak betiko edota aldi baterako aldatuz, murriztuz edo debekatuz edota zama lanak eta salgaien edo pertsonen garraioak arautuz edota berrantolatuz.

5.2. Udaltzaingoa k, herriko tokiren batean zirkulazioaren antolamendua aldatu ahal izango du aldi jakin baterako edo/eta lekuren batean pertsonak eta ibilgailuak sartzeko debekua ezarri. Horretarako, aldi baterako behar diren seinaleak jarri edo kendu eta zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

5.3. Ondasunak edo pertsonak ibiltzeko, aparkatzeko edo garraiatzeko, Udaltzainek adierazitakoak, lehentasuna izango du alde z aurretik dagoen edozein seinale edo araudiren gainetik.

5.4. Udalak, baimena duten ekitaldiak egingo diren tokietan, edo konponketa, seinalez tapen, mantenimendu edo garbiketa-lanak egingo diren lekuetan, aldi baterako aparkatzeko debekua ezarri ahal izango du. Horretarako, aipatutako tokiak edo lekuak, hesiz inguratu eta, aparkatzeko debekua hasi baino 24 ordu lehenagotik han aparkatzea debekatu egingo dela adierazten duten seinaleak jarriko dira, neurri horren hasiera-unea eta arrazoia adierazita.

I. ATALBURUA. JOKABIDE-ARAUAK

6. artikulua. Herri-bideetako oztopoak.

6.1. Debekatuta dago edukiontzi, mahai, aulki, kiosko, saltoki edota beste edozein oztopo edo gauza ere herri-bideetan jartzea, aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe eta bidearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko adinako babes, argiztatze eta seinaleztapenik gabe eta era berean beharrezkoa den baimenean hartarako ezarriko diren arauak bete gabe.

6.2. Herri-agintariak oztopoak kautelaz eta berehala kendu ahal izango ditu, eta gastuak interesatuen kargura izango dira, ondoren datozen egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- 1. Beharrezkoa den baimena eskuratu ez dutenean.*
- 2. Baimenaren adierazitako indarraldia amaitua denean.*
- 3. Baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.*
- 4. Baimena emateko arrazoiak desagertzen direnean.*

6.3. Aldiz, segurtasun edo higiene eta osasun-arrazoiengatik beharrezko denetan edota obrak burutzeko, ikuskizunak egiteko, beharrezko baimena duten segizioak pasatzeko eta antzeko gertakizunak, Udalak era berean oztopoak kendu egingo ditu.

Ekintza horrek sortuko dituen gastuak, Udalaren gain joango dira, zonalde hori ez balitz behar bezala seinalizatu edota oztopoak seinalizazioa jarri aurretik jarriak baleude.

7. artikulua. Seinaleztapena.

7.1. Zirkulaziorako mugapen espezifikokoak dituzten gunek, eremu edo areetarako sarbideetan jarritako zirkulazio-seinaleek eta haiei buruzko testuren bat daramatenek, dagokien gunek, eremu edo area osoan izango dute indarra.

7.2. Aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe, ez da zirkulazio seinalerik jartzerik izango.

7.3. Udal-agintaritzaren iritziz herriaren interesekoak diren informazio-seinaleak bakarrik baimenduko dira.

7.4. Zirkulazio-seinaleetan edo haien ondoan publizitatea jartzeko baimenik ez da emango.

7.5. Debekatua dago erabiltzaileei semaforoak edo seinaleak ikustea galaraziko edo mugatuko dieten edota haien arreta galtzeko bidean jarriko duten estalpe, kartel, iragarki edota instalazioak jartzea.

7.6. *Udalak, behar duen baimenik ez duen edota indarrean diren arauak betetzen ez dituen edozein trafiko seinale ere berehala kenduko du, eta kentzeko gastuak, seinale hura jarri dutenen kargura, edota zeharka haren onura jasotzen dutenen kontura izango dira.*

8. artikulua. Geratzea.

8.1. *Pertsonak hartzeko edo uzteko edota gauzen zamaketa-lanetarako, ibilgailua bi minutu baino gutxiagoko denboran ibilgetzea edo geratuta edukitzea, geratze-eragiketatzat hartuko da.*

8.2. *Geratzea, erabat debekatuta egongo da:*

8.2.1. *Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuetako ibilgailuentzat gordetako lekuetan.*

8.2.2. *Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.*

8.2.3. *Espaloiek ezinduak igarotzeko zintarria janda daukaten lekuen ondoan.*

8.2.4. *Espaloi, pasealeku, oinezkoen eremu eta lorategien gainean.*

8.2.5. *Ertz, bide-banaketa edo bidegurutze batetik 3 metro baino gutxiagora.*

8.2.6. *Zubietan eta tuneletan.*

8.2.7. *Autobus eta taxien geralekuetan.*

8.2.8. *Ibiliaren aurkako noranzkoan.*

8.2.9. *Dauden seinaleek debekua adierazten duten tokietan.*

9. artikulua. Aparkaldia edo aparkatzea.

Aparkalditzat edo aparkatzetzat joko da, geratuta (geraldian) ez dagoen ibilgailu bat ibilgetuta egotea. Orokorrean, ondorengo arauen bidez arautuko da ibilgailuen aparkaldia:

9.1. *Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izango dira, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hau da, espaloiarekiko elkarzut (perpendikular) eta erdi-baterian, hau da, espaloiarekiko zeharka.*

9.2. *Lau gurgileko ibilgailuentzako arau orokorra, ilaran aparkatzea da eta baterian, bi gurgilekoentzat berriz baterian aparkatzea. Arau honen salbuespena, espresuki seinالاتu beharko da.*

9.3. *Seinaleztapena lurzoruan eginda dagoen lekuetan, ibilgailuak hartarako markatutako perimetroaren barnean jarri behar dira.*

9.4. *Nolanahi ere gidariak, ibilgailua bere kasa ez abiatzeko edota beste pertsonaren batzuek ez mugitzeko moduan aparkatu behar dute. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte. Gidariak izango dira aldeztatik aipatu berri diren egoeretakoren baten ondorioz sor litekeen ibilgailuaren kokaleku-aldaketaren baten ondorioz gerta litekeen edozein arau-hausteren erantzule, nola ezta, ibilgailuaren lekualdaketa, hirugarrenen batzuen egintza bortitz nabarmenen baten ondorioz gertatu ez den.*

9.5. *Ondorengo egoeretan debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea:*

9.5.1. *Bertan dagoen seinaleak hala egitea debekatzen duen lekuetan.*

9.5.2. *Elementu mugikor edo zutoinen ondoan, elementu horiek zerbitzuentzako eta larrialdietarako diren pasaguneetan jarrita egon ohi dira eta.*

9.5.3. *Geratzea debekatuta dagoen tokietan.*

9.5.4. *Bigarren ilaran, lehenengo ilara oztopo edo/eta babes-elementuren batek hartua egon arren*

9.5.5. *Ibiliaren aurkako noranzkoan.*

9.5.6. *Bertan dagoen pasabidea uzteko seinalea aintzat hartu gabe edozein eraikinetarako ibilgailu-sarbidean pasabidea erabat edo zatiren bat itxiz.*

9.5.7. *Karga eta deskargako lanak egiteko gordetako lekuetan.*

9.5.8. *Ezinduek bakarrik erabiltzeko seinalatutako lekuetan.*

9.6. *Herri-bideetan ez da motorezko ibilgailutik bereizitako atoi eta erdi-atotirik, ez eta autobusik, traktorarik, karabanarik edota 3.500 kiloko B.G.M.tik gorako ibilgailurik aparkatu ahal izango, horretarako espresuki baimendutako modu, toki eta aldietan izan ezik, hauek udal-bandoaren bidez iragarriak izango dira.*

9.7. *Udalak, salbuespen-izaeraz, herriko zenbait auzo edo eremutan aparkatzea mugatu ahal izango du, horretarako baimena ibilgailu zehatz batzuei bakarrik emanez.*

9.8. *Leku berean ezingo da 30 egun jarraian baino gehiagorik edo mugarik gabeko epealdian aparkatu, abandonu-egoera eman dela uste izateko moduan.*

9.9. Udaltzainek, salbuespen izaeraz, herri-bideetako leku zehatzetan aparkatzea debekatu ahal izango dute, behar bezala baimendutako festa, kultura, kirol edo - antzeko ekitaldiak direla eta.

10. artikulua. Oinezkoentzako guneak.

10.1. Oinezkoen gunea osatzen duten kaleak honakoak dira: Kale Nagusia - Bideluze plaza - Jose Martin Arana kalea - J.M. Iturriotz kalea 2tik 16ra - Nafarroa etorbidea 1etik 25era eta Gernika pasealekua.

Oinezkoen gunea izendatzeak zera esan nahi du: Mugatutako esparru osoan oinezkoek izango dutela erabiltzeko lehentasuna, ibilgailuen trafikoa debekatuta egongo dela, baita geratu eta aparkatzea ere; berariaz baimendutako ordu-etan/kasuetan izan ezik. Segidako artikuluetan arautzen dira kasu horiek.

10.2. Oinezkoentzako gune horiek, sarreran eta irteeran dagokien seinalea izan beharko dute, diseinu, egitura, apaindura edo zoladuragatik, gune horiek helburu horretarako direla bistakoa denean salbu.

10.3. Kontrol sistemaren ezaugarriak. Sarreran semaforoa beti argi gorria piztuta duela egongo da, behar beharrezko informazioa emango duten kartel eta displayekin batera.

Kontrola kamera bidez egingo da, eta honek matrikula irakurgailua izango du.

Baimendutakoa bada, semaforoa kolorez aldatuko da, gorritik anbarrera, eta displaya «itxita» egotetik «irekita» egotera pasatuko da, une horretan sartzea posible izanik. Baimendutakoa ez bada, ez dauka pasatzerik, sartzen bada sistemak zigor espedienteari hasiera emango diolako. Gainera, Udaltzaingoaren telefonoa azaltzen den kartela dago jarrita, baimena eskatu ahal izateko.

Debekatuta geratzen da, oinezkoentzako gunean zirkulatzea behar den baimenik gabe.

10.4. Ibilgailuen trafikoa.

Zirkulazioko arau berezi hauen menpe dago baimendutako ibilgailuen trafikoa:

— Ibilgailuen gehieneko abiadura 10 km/orduko izango da.

— Motordun ibilgailuek, ziklomotorrek eta zikloek, oinezkoei lehentasuna eman beharko diete, hauek igarotzerakoan abiadura paso normalera murriztuz (10 km/o), beharrezkoa balitz, geratuz.

— Motordun ibilgailu eta ziklomotorrek seinaleei kasu eginez zirkulatu beharko dute, bereziki zirkulazioaren noranzkoa eta abiadurarena adierazten dutenei.

— Txirrindulariek oinezkoentzako gunean noranzko batean zein bestean zirkulatu dezakete.

10.5. Baimenen taldeak eta ordutegiak.

Guztira 7 talde egin dira. Garajeak - Larrialdiak - Karga eta deskarga - Dendariak - Bertakoak - Beste batzuk eta baimen bereziak.

10.5.1. *Garajeak: 24 orduko baimena izango dute.*

10.5.2. *Larrialdiak: 24 orduko baimena izango dute.*

10.5.3. *Karga eta deskarga: Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 13:00etara eta bereziki hornitazileei zuzenduta.*

10.5.4. *Dendariak: Bi baimen mota daude.*

— *Astelehenetik larunbatera 6:00etatik 15:00etara.*

— *Astelehenetik larunbatera 4:00etatik 9:00etara eta 13:00etatik 00:00etara.*

Bi kasuetan karga eta deskarga egiteko izango da. Bietako bat hartu behar da.

Denda bakoitzeko baimen bat emango da.

10.5.5. *Garajerik ez duten bizilagunak: Ibilgailuaren jabeak oinezkoentzako gunean erroldatuta egon beharko du.*

Nafarroa etorbidea: 24 orduko baimena. Egunean behin sartu ahal izango da eta gehienez 20 minutura.

Kale Nagusia: 24 ordu baimentzen da, 17:00etatik 21:00etara izan ezik. Egunean behin sartu ahal izango da eta gehienez 20 minutura.

10.5.6. *Beste batzuk:*

Hauen ordutegia beraien beharretara egokituko da.

10.5.7. *Baimen bereziak.*

Beharretara egokituko dira.

10.6. *Baimen iraunkorrak.*

Oinezkoentzako eremuko garaje erabiltzaileek, larrialdietakoek, ohiko karga eta deskarga egiten dutenek, dendariak eta bertakoek.

Baimen iraunkorra lortzeko eskubidea izango dute. Baimena lortu duen erabiltzailearen egoera eta baldintzak aldatzen ez diren bitartean, baimen mugagabeak izango dira; hala ere, Udalak baimen hori edozein garaitan berraztertu dezake, bere kabuz edo edozeinek eskatuta, eta baimen hori kendu.

11. artikulua. *Garraio publikoaren geroak.*

Udal-administrazioak, garraio publikoetako zerbitzu desberdinetako bakoitzari, dagozkion geroak eta bertan egon ahal izateko denboraldiak zehaztu ahal izango dizkio.

12. artikulua. *Karga eta deskarga.*

Karga eta deskargarako lekuak gordeta izango dituzten ibilgailuak, salgaien garraioan bereziki eta espresuki ari direnak izango dira eta lan horiek egiteko helburua bakarrik izango dute.

12.1. Salgaien karga eta deskarga, merkataritza eta industri arloko lokalen barruan egin beharko da lehentasunez, eta lokal horiek, hartarako baldintza egokiak izan beharko dituzte.

12.2. Merkataritza- edo industri arloko lokalek karga eta deskarga barruan egiteko egokierarik ez dutenean, lan horiek, hartarako jarritako ordu eta lekuetan egin beharko dira.

12.3. Udal Agintaritzak zehaztuko ditu karga eta deskargarako gordetako lekuak eta hori egiteko baimendutako orduak.

12.4. Karga eta deskarga egiteko baimena duten ibilgailuak, horretarako gordetako gunetan bakarrik egon ahal izango dira aparkatuta.

12.5. Nolanahi ere, zama-lan egiteko baimena baimendutako ordu eta/edo leku orokorretatik kanpo ere eman ahal izango da, auzokideei eta gainerako bide-erabil-tzaileei eragozpenik sortzen ez zaienean.

12.6. Era orokorrean geratzea debekatuta dagoen lekuetan, inoiz ez da zama-lan egiteko ahal izango.

12.7. Karga eta deskargarako lanen ondoriozko salgai, material edo gauzak, ez dira lurrean utziko, baizik eta eraikinetik ibilgailura edota alderantziz zuzenean eramango dira.

12.8. Karga eta deskarga-lanak, zarata kaltegarriarik ez ateratzeko, behar diren neurriak hartuta egingo dira.

12.9. Salgaiak, espaloitik hurbilena dagoen ibilgailuaren aldetik zamatuko dira eta lan hori ahalik eta lasterren egiteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliko, beti ere, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzen ahaleginduz.

13. artikulua. Gordetako bideak eta erreiak.

13.1. Udal Agintaritzak, ibilgailu-mota batzuek ibiltzeko errei edo bide batzuek gorde ahal izango ditu.

13.2. Hartarako gordetako errei edo bideetatik ibiltzea, derrigorrezkoa ere izan daiteke haiek berentzat gordeta dituzten ibilgailuentzat.

14. artikulua. Abiadura.

14.1. Hirigunean erabil daitekeen abiadurarik handiena, 40 km/h-koa izango da, bestelakorik dioen seinalerik ez bada.

14.2. Oinezkoentzako gunetan, hartarako baimena emanda dagoenean, eta espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezkoen joan-etorri handia dagoen beste hainbat lekutan, ibilgailuek, oinezkoak pasatu ahala abiadura laburtu egin beharko dute eta baita geratzera iritsi ere egoerak hala eskatzen duenean. Beti ere, istripurik izan ez dadin hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituzte.

14.3. Era berean, oinezkoentzako istripuak edo eragozpenak ez sortzeko diren neurriak hartuko dira, batez ere, zoladura gaizki dagoenean edo galtzada estutzen denetan, obretan ari direnean, eguraldi txarra egiten duenean, eta abar.

15. artikulua. Zirkulazioa.

15.1. *Ibilgailuek, ez dute zaratarik sortu behar soinuak edo seinale akustikoak behar ez bezala erabilia, bortizki azeleratuta, ihes-tutua aldatuta edo hondatuta eramanda edota antzeko egoerek eraginda.*

15.1.1. *Kendu egingo da.*

15.2. *Bizikleta eta ziklomotoeen gidariek, indarrean diren zirkulazio- eta seinaleztapen-arauak jakin egin behar dituzte eta haiek eta Agintaritza-agenteeek emandako argibideak estu-estu bete behar dituzte.*

15.3. *Zikloek, irristailuek eta gurpil-oholek, berentzat gordetako erreietan ibili behar dute edo oinezkoen gunetan, oinezkoen lehentasuna errespetatuz eta haienentzat arriskurik sortu gabe, abiadura oinezkoenari egokitu. Zikloek inoiz ezin izango dute herriko beste espaloietan zirkulatu.*

15.3.1. *Debekatua dago irristailu, gurpil-ohol eta antzekoekin galtzadetan ibiltzea.*

15.4. *Txirringak galtzadan zehar dabiltzanean, eskuinaldeko ertzetik ibiliko dira.*

15.5. *Hainbat txirrindulari taldean doazenean, hauek parean joan daitezke.*

15.6. *Debekatuta dago txirringan edo ziklomotoeran beste lagunik eramatea, azken horrek horretarako baimena duenean salbu.*

15.7. *Gurpildun aulkietan dabiltzanak, oinezkoentzako espaloietan ibiliko dira beren neurriek oinezkoen eragozpenik sortu gabe ibiltzeko aukera ematen dietenean. Hori ezinezkoa balitz, galtzadatik ibiliko dira, eskuinaldeko ertzetik eta une oro ere bideetako seinaleak errespetatuz.*

16. artikulua. *Ibiltzeko edo aparkatzeko baimen bereziak.*

Udaleko Agintaritzak, pisu edo neurri batzuetatik gorako ibilgailuak leku eta/edo ordu zehatz batzuetan zirkulatzea edo aparkatzea mugatu ahal izango du, eta horretarako udal baimenik izan ezean, herriko bideetan barrena ez dute zirkulatzerik izango. Baimen hori, bidaia bakar baterako edo denboraldi baterako eman ahal izango da.

17. artikulua. *Herri-bideetan galarazitako jarduerak.*

17.1. *Beste oinezko batzuentzat edo jarduera horiek egiten ari direnentzat arriskua edo eragozpenak sor ditzaketen jolas edo denborapasak, herri-bideetan ez dira egingo.*

17.2. *Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko sortutako itxarote-ilarak, ordenaz egin beharko dira, banakako ilaran eta eraikinaren fatxaden kontra, galtzadara irten gabe eta etxebizitza eta dendetarako sarbideak libre utziz. Ilara horiek sortzen dituzten jardueren arduradunek, beharrezkoa den ordena-zerbitzua jarri beharko dute, bidea erabili behar duten pertsonen eragozpenik ez jartzeko edota haiekin gorabeherarik ez izateko.*

17.3. *Debekatua dago salgai arriskutsuak dituzten ibilgailuek herrian barrena zirkulatzea eta horretarako herria inguratzen duten bideak erabili beharko dira.*

Salbuespen izaeraz, erabat behar-beharrekoa denetan ibilgailu horiei herri-gunera sar-tzeko baimena emango zaie, ondoren aipatzen diren arrazoietakoren bat tarteko delako eta, beti ere, ondorio bakar horietarako eginda eta urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak xedatutako eran eta baldintzen pean eginda:

— Salgaien karga eta deskarga egiteko eta salgaiak banatu edo zabaltzeko.

— Behar bezala justifikatuak eta ezinbestekoak diren arrazoiengatik.

17.4. Debekatuta dago herri-bideetan ibilgailuak garbitzea, hartarako leku zehatzen bat egokituta dagoenean salbu.

II.IDAZPURUA

ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA, MAILAKETA, JARRI BEHARREKO ZIGORRAK
ETA ZIGORREN PROZEDURA

I. ATALBURUA. -ARAU-HAUSTEAK, MAILAKETA ETA EZARRIKO ZAIZKIEN ZIGORRAK

18. artikulua. Arau-hausteen kontzeptu orokorra.

Administrazio-hutsegite izaera izango dute, ordenantza honek arau-haustetzat jotzen dituen egintza edo ez-egite guztiek eta haren baitan ezarritako portaera-arauen aurkako jarrerak, baina martxoaren 2ko 339/90 E.D.L.ak eta horren arau-xedapenek ondorio horientzako zuzenean ezartzearen kalterik gabe, lege penaletan sailkatutako delitu edo hutsegiteak diren kasuetan salbu, kasu horietan Administrazioak erruaren zatia horretarako eskuduntza duen eskumenari pasatuko baitio eta zigor-prozedura gelditu egingo du, Agintaritza Judizialak epai finkoa ematen ez duen arte.

19. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak.

19.1. Ordenantza honekiko egindako arau-haustek, arin, larri eta oso larri mailetan sailkatuko dira. Arau-hauste arinak 100 € arteko isunarekin zigortuko dira, larriak 200 €-ko isunarekin eta oso larriak 500 €ko isunarekin, indarrean dagoen legeriak kontuan hartutako albuespenak izan ezik.

19.2. Ordenantza honi erantsita doa arau-hausteen eta haien zenbatekoen Eranskina.

19.3. Abiadura gaitzitzeagatik egindako arau-haustek, indarrean den legedian zehaztuta dagoen zenbatekoarekin zigortuko dira.

19.4. Alkoholdun edarien, sustantzia sorgogarrien edo antzekoen eraginpean gida-tzeagatik egindako arau-haustek eta sustantzia horiek antzemateko edota alkohol-neurria jakiteko probei ezetza esatea, arau-hausteen taulak dakarren eranskinean jasotako zenbatekoarekin zigortuko dira.

19.5. E.D.L. ren 6/2015eko 80.1 artikuluan eta IV. eranskinean ezarritako isunei dagokien diru-kopurua % 30 hazi liteke honako hauek aintzat hartuta:

1. Gertatutakoaren garrantzia eta larritasuna.

2. Arau-hausteen aurrekariak.

3. *Berrerortzea.*

4. *Berarentzako eta bidearen erabiltzaileentzako arrisku potentziala sortzea eta egokitasun printzipioa.*

19.6. *Arau-haustearen arduradun gidaria identifikatu beharra du ibilgailuaren titularrak edo errentariak eta bidezko arrazoirik gabe prozedura tramitean betebeharrak betetzen ez bada, isuna eragin duen arrazoiarentzako ezarrita dagoen diruzko zigorraren bikoitza ezarriko zaio arau-hauste arina bada, eta hirukoitza arau-haustea larria edo oso larria bada.*

II. ATALBURUA. ZIGOR-PROZEDURA.

20. artikulua.

Motordun ibilgailuen trafiko eta zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko zigor-prozedura, indarrean dagoen legedian ezarrita dagoena izango da:

E.D.L.aren 6/2015, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina eta otsailaren 25eko 320/1994 E.D., Trafikoari, ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari, buruzko galetako zigor-prozeduraren araudia onartzen du.

21. artikulua. Isunaren ordainketa. Prozedura laburtua.

Isuna, jakinarazitako egunaren biharamunetik 20 eguneko epean ordainduz gero, %50 murriztuko da eta ondorio hauek izango ditu:

— *Alegazioak aurkezteari uko egitea. Eginez gero, ez dute baliorik izango.*

— *Ordainketa egiten den egunean, prozedura amaitu egingo da, xedatutako ebazpen beharrik gabe.*

— *Administrazio bidea amaitutzat emango da eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren aurrean bakarrik jar daiteke errekurtoa.*

— *Administrazioarekiko auzien errekurtoa jartzeko epea ordainketa egin eta hurrengo egunean hasiko da.*

— *Ordainketa unetik, administrazio bidean zigorraren irmotasuna, hurrengo egunetik ondorioak sortuz.*

— *Zigorra, Arau-hausle eta Gidarien erregistroan ez da aurrekari bezala kontuan hartuko, beti ere, puntuak galtzea ez dakarten arau-hauste larriak badira.*

22. artikulua. Prozedura eratzeko eta zigorrak jartzeko eskuduntza duten organoak.

Ordenantza honetako arauetako egindako arau-hausteengatik irekitako espedienteen izapidetzea, Udaltzaingoaren administrazio-atalak egingo du, izapidegilea Udaltzain

burua izanik. Prozedura amaitzean, dagokion ebazpena emango du organo zigor-emaileak, eta organo hori Alkate-Udalburua izango da.

23. artikulua. Agintaritzaren agenteen betebeharrak.

Udaltzainak, Agintaritzaren agenteak dira eta Ordenantza honekiko eta indarrean diren legeekiko egindako arau-haustea salatuta egin beharko dituzte.

III. IDAZPURUA

IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA KENTZEA

I. ATALBURUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA

24. artikulua.

Ibilgailuak herri-bidean ibilgetzea, bidezkoa izango da ondorengo kasuetan:

24.1. Ibilgailuak zirkulatzeko baimenik ez duenean.

24.2. Ibilgailuak bide segurtasunarentzako bereziki arriskutsuak izan daitezken akatsak dituenetan.

24.3. Gidariak odolean legeak onartutakoa baino alkohol-tasa handiagoa duenean, edo sorgorgarri edo antzekoen eraginpean dagoenean.

24.4. Gidariak odolean daraman alkohol-edukia edo sustantzia sorgorgarri edo antzekoena neurtzeko proba egiteari uko egindakoan eta edari alkohol-dun edo/eta sustantzia sorgorgarri edo antzekoak hartu izan dituenaren sintomak nabaritzen direnean.

24.5. Ziklomotore edo motozikletaren gidariak kasko homologaturik gabe zirkulatzen duenean.

24.6. Gidariak ibilgailuentzako derrigorrezkoa den aseguru-agiria berekin ez daramanean.

24.7. Pertsonak garraiatzean, baimendutako plazen kopurua, gidaria kenduta, %50ean gainditzen denean.

24.8. Legedian ezarritako gida denboran edo atsedena dietan %50eko gutxitzea edo handiagoa ikusten bada, gidaria ordezkatu ez bada behintzat.

24.9. *Ibilgailu mota kontuan hartuta, baimendutako gas, ke eta zarata neurriak gainditzen dituen.*

24.10. *Kontroleko tresnak manipulatuak izan direla adierazten duten zentzuzko zantzuak daudenean.*

24.11. *Ibilgailua irudiak jasotzen dituen kontrol tresnak eta Trafiko agenteen zaintza saihesteko mekanismo edo sistemaren batekin hornituta dagoenean.*

24.12. *Arau-hausteren bat salatutakoan, salatuak ohiko egoitza espainiar estatuan duela kreditatzen ez duenean eta isunaren behin-behineko kopurua ordaintzeko diru-kopururik gordailuratzten edo bermatzen ez duenean.*

24.13. *Ibilgailu bat araudia hausten duela aparkatuta dagoenean, baina zirkulazioa larriki nahastu gabe eta bere gidaria bertan ez legokeenean, edota bertan egonda handik kentzeari uko egiten dionean.*

24.14. *Ibilgailuak aparkatzeko gehieneko denboraldia ezarrita dagoen gunea batean (TAO gunea) aparkatuta dagoenean eta derrigorrezko txartel edo ordu-frogagiririk ez duenean, edota, hura izan arren, baimendutako gehieneko egonaldi-denbora gaindituko duenean.*

24.15. *Ibilgailua ibilgetzea indarririk gabe utziko da, egoera hori sortu zuen arrazoia desagertu orduko edota gidariaren ordezkari hartarako gaitua dagoen eta Agintaritzaren agenteei behar hainbateko bermea ematen dien beste gidari bat jar daitekeenean eta hark parte hartzea interesatuak berak eskatu duenean.*

II. ATALBURUA. –IBILGAILUA KENDU ETA GORDETZEA

25. artikulua.

Ibilgailuak herriko bidetatik kentzea eta udalak ibilgailuak jasotzeko duen biltegira eramatea, bidezkoa izango da ondorengo kasuetan:

25.1. *Ibilgailuen edota oinezkoen zirkulaziorako edo udal-zerbitzu bat kaltetzea, arriskua sortzen duen kasu guztietan.*

25.2. *Ibilgailua bertan behera laga dutenaren edota lapurtutakoa denaren arrazoizko ustea dagoenean edota hori pentsaraztera daramaten kalteak dituen.*

25.3. *Herri-bideko leku berean 30 egun baino gehiago aparkatuta daramatzanean eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten hondamenak dituen edo matrikula-plakak ez dituen.*

25.4. *Istripu bat dela medio, ibilian jarraitzeko moduan ez dagoenean.*

25.5. *Aurreko atalean zehaztutako arrazoiren bat erabiliz ibilgailua ibilgetua denean, 5. lerrokan ezarritakoa erabiliz izan ezik eta aipatutako arrazoia desagertzeko adinako epealdia igaro ondoren, arrazoiak jarraitzen duenean.*

25.6. 24.12.atalean xedatutakoari jarraituz ibilgailu bat ibilgetutakoan, lege-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu edota ordainketa hori bermatu nahi ez duenean.

25.7. Horretarako aginpidea duen Agintaritzak, ibilgailua bahitzeko esan eta udal-biltegian uzteko agindua eman duenean.

25.8. Horretarako aginpidea duen Agintaritzak ibilgailua zigilatzeke esan eta udal-biltegian uzteko agindua eman duenean.

25.9. Ibilgetu arazitako ibilgailua babesteko, hark dagoen tokian egonda bidearen gainerako erabiltzaileentzat edota ibilgailuarentzat berarentzat arriskua sortzen duenean.

25.10. Ibilgailuak aparkatzeko gehieneko denboraldia ezarrita dagoen gunen batean (TAO gunea) aparkatuta dagoenean eta derrigorrezkoa den txartel edo ordu-frogagiririk ez duenean, edota, frogagiria izan arren, baimendutako gehieneko egonaldi-denbora bi aldiz gainditua duenean.

25.11. Ibilgailua legez ibilgetzen denean, pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatu gabe ibilgetzeko leku aproposik ez dagoenean.

25.12. Ibilgailua Udal-agintariak pertsona minusbaliatuentzako erreserbatutako tokian aparkatuta dagoenean, horretarako baimentzen duen txartelik gabe.

25.13. Ibilgailua zirkulaziorako erreserbatuta dauden bide zatiak, erreiak edota erabiltzaile batzuen zerbitzurako eta karga eta deskargarako erreserbatutako gunetan aparkatuta dagoenean.

25.14. Bizikletak hartu eta biltegira eraman ahal izango dira, abandonatuta badaude edota, lotuak egonda, oztopatu edo pertsonak edo kaleko altzariak kaltetzen badituzte.

26. artikulua. Ibilgailua kentzearen arrazoiak.

Adierazpen gisa, ibilgailu bat, Ordenantza honetako 25. atalaren 1. azpiataletan zehaztutako egoeratan dagoela eta hura handik kentzea justifikatua dagoela irizten da, ondorengo moduren batean aparkatuta dagoenean:

26.1. Geratzea debekatuta dagoen lekuan.

26.2. Bigarren ilaran dagoenean.

26.3. Beste gidariei maniobra arriskutsuak eraginarazten dizkien lekuren batean dagoenean.

26.4. Seinaleztatutako oinezkoen igarobide batean, oso-osorik edo zatiren bat bertan duela dagoenean.

26.5. Garaje-sarbideren bat oso-osorik edo zati bat hartzen duela dagoenean.

26.6. Karga eta deskargarako gordetako gune bat, erabilera-orduetan, oso-osorik edo zatiren bat hartzen duela dagoenean.

26.7. Garraio publikoaren geralekuren batean, jarduera-ordutegiaren barruan, oso-osorik edo zati bat hartzen duela dagoenean.

26.8. Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuetarako espresuki gordetako lekuren bat edota era horretako ibilgailuak lekuren batera iristea oztopatzen duela dagoenean.

26.9. Ikuskizunen inguruan jarri eta behar bezala seinaleztatuta dauden larrialdietarako lekuen irteeren aurrean dagoenean, ikuskizunak jardunean ari diren orduetan.

26.10. Zirkulaziorako den errei batean dagoenean.

26.11. Espaloi, aterpe edo oinezkoentzako guneren baten gainean, oso-osorik edo zatiren bat dagoenean.

26.12. Herri-bidearen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea galarazten diela dagoenean.

26.13. Beste herri-bide batetik datozen gidariei herri-bideko trafikoa ikustea eragozten diela dagoenean.

26.14. Eraikinen baterako sarrera erabat edo neurri batean eragozten duela dagoenean.

26.15. Baimena duen erabilera publikoko aparkaleku edo gordelekuren baterako sarbidea, zirkulazioa edo aparkatzea eragozten edo zailtzen duela dagoenean.

26.16. Aparkatzeko gunetik kanpo ateratzen dela eta zirkulazioko gunea hartuz dagoenean.

26.17. Duen egoerak auzokideentzat arriskua sortzen duela eta soinu-alarma edo bozina nahiz turuta, jotzen hasita dagoenean.

26.18. Ezinduentzako behar bezala seinaleztatutako guneren batean dagoenean.

26.19. Seinaleak, garabia erabiliko den seinalearekin sendotutako lekuan dagoenean.

27. artikulua.

Ibilgailuak eramateko udal-biltegiak izan ezean, edota, halakorik izan arren, bertan lekuri egon ezean, aparkatuta dauden eta aparkatze irregularreko egoerarekin batera zirkulazio-eragozpenak, asteroko azokarako postuak jartzeko eragozpenak edota dagokien pasabide-seinalea duten garajeetarako sarrera-irteerak eragozten dituzten eta/edo 26. atalean adierazitako egoeretan dauden ibilgailuak, dauden lekutik garabia erabiliz kendu eta ibilgetuta eduki ahal izango dira aparkalekuren batean, hain zuzen ere Agintaritzaren agenteek esango duten tokian, eta egoera horretan jarraituko dute,

handik jasotzeko dagokien tasa ordaindu artean.

28. artikulua. Beste arrazoi batzuek.

Arau-hausterik egin ez arren edota isuna ordaintzeko beharrik ez izan arren, ondoko kasuetan ibilgailuak herri-bidetik kenduak izango dira:

28.1. Behar den baimena duen ekitaldi publikoren batek hartu behar duen tokian aparkatuta daudenean.

28.2. Kalea garbitu, konpondu, seinaleztatu behar denean edota bertan mantenimendu-lanak egin behar direnean.

28.3. Behar bezala arrazoitutako larrialdietan.

Kasu horietan eta 5.4.atalean esandakoaren kalterik gabe, ibilgailuaren titularrari kaletik zergatik kendua izan den azaltzen ahaleginduko da udala, eta hala balegokio, baita titularra topatzen ere.

29. artikulua. Ibilgailuak kentzea gerarazi.

Ibilgailua kentzen ari direla gidaria azaldu eta ibilgailua behar den lekuan aparkatuko balu, erretiratzeko lana une hartan bertan geraraziko da. Tasei dagokienez, kasu horretan, ordenantzak dioena egingo da.

IV. IDAZPURUA

IBILGAILUAREN HONDAKIN TRATAMENDUA

I. ATALBURUA. -IBILGAILUAK TRATATZEKO ZENTRO BAIMENDURA IBILGAILUA ERAMATE

30. artikulua.

Trafiko kudeaketarako administrazio eskudunak agindua eman ahal izango du, Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentrora ibilgailua eraman eta ondorioz desegin eta deskontaminatzeko:

30.1. Ibilgailuak bi hilabete baino gehiago daramatzean ibilgetuta edota bide publikotik erretiratuta eta administrazioak gordeta, eta jabeak alegaziorik egin ez duenean.

30.2. Ibilgailua leku berean hilabete bat baino gehiago aparkatuta egon eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten hondamenak ditueneko edo matrikula-plakak ez ditueneko.

30.3. Ibilgailua matxura edota istripuagatik toki pribatu batean jaso denean eta jabeak bi hilabeteko epean erretiratu ez badu.

Ibilgailua eramateko agindua eman aurretik, Administrazioak jabeari errekerituko dio, hilabeteko epean erretiratzen ez badu, Baimendutako Tratamendu Zentro batera eramango dela.

30.4. Jakinarazpenak Ibilgailuen Erregistroan titular gisa agertzen denari egingo zaizkio.

30. 5 Ibilgailuaren hondakin tratamenduaren ondorioz sortutako gastuak, haren titularraren kontura izango

31. artikulua.

30.3 artikulua jasotako egoera ematen denean, toki edo barrutiko jabe edo arduradunak ibilgailuari hondakin tratamendua emateko baimena eskatu behar du Probintziako Trafiko Buruzagitzara. Ibilgailuaren jabeari barrutik erretiratzearen eskaera egin izanaren dokumentazioa aurkeztu beharko du.

32. artikulua.

Komenigarria ikusten den kasuetan, Alkateak edo ordezkoko agintariak, ibilgailua desgitearen ordezkari zaintza eta trafiko kontrola egiten duten zerbitzuei esleitu diezaiekete, eremu bakoitzean hurrenez hurren.

II. ATALBURUA.

-ADMINISTRATIO BAIMENETAN XEDAPEN MUGAK

33. artikulua.

Gidabaimen edo lizentzia baten jabe den titularrak ezin izango du Ibilgailuen Erregistroan bere izenean azaltzen diren ibilgailuen tramitaziorik egin, gidari historialean ordaindu gabe administrazio bidean zigor irmoa duten lau arau-hauste larri edo oso larri izanez gero.

34. artikulua.

Ibilgailuaren jabeak ezin izango du ibilgailuari dagokion tramiterik egin, ibilgailuaren historialean ordaindu gabe administrazio bidean zigor irmoa duten lau arau-hauste larri edo oso larri izanez gero.

35. artikulua.

Aurreko ataletan aipatutakoetatik kanpo geratzen da behin-behineko edo behin betiko ibilgailuen baja.

V. IDAZPURUA

IBILGETZE, JASOTZE ETA BILTEGIAN GORDETZEAREN HERRI-ZERBITZUA EMATEAGATIK SORTUTAKO TASAK

36. artikulua.

Ibilgailua herri-bidean ibilgetzeko eta/edo handik jasotzeko zein hartarako jarriko den biltegian gordetzeko zerbitzua emateagatik sortuko den tasa, ekitaldi bakoitzerako dagokion Ordenantzak ezarriko duena izango da.

37. artikulua.

Ibilgetzearen agindua kentzea eta aurrez garabiarekin kendutako ibilgailua itzultzea, titularrari edota baimendutako pertsonari bakarrik egin ahal izango zaio, dagozkion tasak ordaindu edota ordaintzeko bermea jarri ondoren, baina ez hala 28. atalean aurreikusi diren kasuetan.

38. artikulua.

Aipatutako tasak, ibilgailua jasotzeko eta eramateko eragiketak egiteari ekiten zaionetik, ibilgailua kateatzen edo lotzen den unetik, hasita ordaindu beharko dira.

Azken xedapena.

Ordenantza hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik indarrean jarriko da.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe gelditzen da 2010eko uztailaren 1ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Hiritar Izaerako Herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen Udal-Ordenantza erregulatzailea.”

7.- PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEA ELKARTEA.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hots:

“AURREKARIAK:

- 1. Pirinioetako Burdinaren bidea, 2004ko maiatzean Europako Kultura Ibilbideen programan sartu zen eta Europako Kontseiluak ohorezko aipamen bat eman zion proiektu honi eta 2004ko abenduaren 9an Europako Kultura Ibilbidetzat hartu zuen.*
- 2. Beasaingo Udalak 2008az geroztik adierazi izan du ekimen horretan parte hartzeko interesa baina horretarako idatzitako hitzarmena sinatzera ez zen iritsi.*
- 3. Krisialdiaren ondorioz 2009- 2014 urte artean geldirik egon da ibilbidea eta Europako Kontseiluak proiektua geldirik egoteagatik balorazio negatiboa egin*

zuen eta epe bat jarri zion Kultur Ibilbidea izendapenarekin jarraitzeko lanean hasteko.

4. Hori dela eta, 2017an bilera batzuen ondorioz, aurrera jarraitzeko egin beharreko bidea adostu zen. Horretarako Elkarte berria sortzea eta erregistratzea bazkide berriak sartzeko aukera irekiz, Estatutuen testua aldatzea eta Udaleko ordezkaria izendatzea.

2018ko maiatzaren 24ko datarekin Kultura eta euskara koordinatzaileak egindako txostena kontutan izanda, Herritarren Batzordeak ondorengo proposamena egiten dio Udal Batzari:

Lehena. Beasaingo Udala “Pirinioetako Burdinaren Bidea elkartean” sartzea onartzea.

Bigarren. Honekin batera aurkezten diren elkartearen estatutuak onartzea.

Hirugarren. Xabier Matarranz Rico jauna izendatzea Elkarte horretako Beasaingo Udaleko Ordezkari.

Laugarren. Aipatutako elkartean sartzeak elkarte horren Batzar Orokorrean onartutako ordainsaria ordaintzea dagokiola Beasaingo Udalari.

Bosgarren. Erabaki honen berri ematea Elkartearen Erregistro Nazionalari (Armador de los Rios kalea, 7, 28010 Madril.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

8.- HITZARMENA. Beasaingo Udala eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmena, udaltzaingoaren oinarritzko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa prozesu bateratuen kudeaketarako.

Ezagutzero eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hots:

“AURREKARIAK

Kontutan edukirik Sektore publikoko Erregimen Juridikoa arautzen duen urriaren 1 eko 40/2015 Legeak eskaintzen duen eskumena, udalek kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmenak sinatzeko material izaera duten jarduerak burutu al izateko, ondorengo hitzarmena landu da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia artekoa, aurrekinetan argituz zeintzuk diren arrazoiak.

OINARRI JURIDIKOAK

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17,1,4 artikulua.

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa. Sektore Publikoaren Araubidearena. 11. artikulua.
- 9/2017 legea, azaroaren 8koa Sektore Publikoko kontratuena, 6. Artikulua.

Azaldutakoaren arabera, Antolakuntza Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Osoko Bilkuraru:

Lehenengoa.- Beasaingo Udala eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia arteko hitzarmena sinatzearen proposamena onartzea ondorengo edukinarekin:

KUDEAKETA MATERIALAREN GOMENDIOARI BURUZKO HITZARMENA, BEASAINGO UDALAREN ETA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ARTEKOA, UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE KATEGORIAN SARTZEKO HAUTAKETA PROZESU BATERATUEN KUDEAKETARAKO.

(e)n, 2018ko -ren, - (e) an

BILDUTAKOAK

Alde batetik, Malentxo Arruabarrena Julián anderea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia, urtarrilaren 8ko (urtarrilaren 16ko EHAA, 11 zk.) 68/2013 Dekretuaren bitartez izendatutakoa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20 eta 26 artikuluek ematen dizkioten eskumenak erabiliz, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Erakunde Autonomoaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena.

Beste aldetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Beasaingo Udaleko alkatea, Udal horren ordezkaritzan.

Bi aldeek, daukaten ordezkaritzaren indarrean, dagozkien atribuzioen jardunean eta aipatutako ordezkaritzatik sortutako elkarren arteko ahalmenen onarpenean, honakoa

AZALTZEN DUTE:

LEHENENGOA.- Beasaingo Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018ko maitzaren 23ko Aldizkari Ofiziala, 98 zk.) 2018ko ekitaldian Lan-eskaintza Publikorako deia argitaratu duela. Horretan, korporazio horretako Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente izateko lanpostu bien deia egin da.

BIGARRENA.- Bi Administrazio jarduleak konturatzen direla toki-mailan sortzen den zailtasuna halako Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozesuak egiteko, bere kudeaketa materialaren konplexutasunetik eta deia egiten duen erakundeari sortutako gastu ekonomikoetatik eratorria. Hori gutxi balitz, toki-erakunde gehienetan ez dute langile espezializaturik halako prozesuak aurrera eramateko.

Aldi berean, Toki-erakunde desberdinetako azpieskaletan sartzeko hautaketa prozesuen deialdi eta lan publikorako egungo eskaintza ugariak baliabideen sakabanatzea eta gastuen biderketa sortzen dituzte.

HIRUGARRENA.- Bi aldeak konturatzen dira hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduteko esparru komuna ezartzearen abantailez eta EAEko toki-erakundeei aplikagarri izan beharko lukeela, borondatez eta beren toki-autonomiaren jardunean kide egiten direla.

Abantailen artean honakoak daude:

- Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalarako hautaketa profil bera aplikatzea.*
- Aipatutako hautaketa prozesuen ezaugarriak bateratzea.*
- Aldi berean zenbait hautaketa prozesutan parte hartzen duten izangaien ihesetik eratorritako gainerako gastuen arazoak ebaztea.*
- Lehen adierazitakoagatik, hautaketa prozesuetan zehar lanpostu hutsen sorrera saihestea.*
- Prozesuak egiteagatik gastua gutxitzea.*

LAUGARRENA.- Eraginkortasun arrazoiak direla-eta, Beasaingo Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatzen diola Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozesuak egiteko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 artikuluan eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 23.1.C eta F artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, behean izenpetzen dutenek kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmen hau sinatzen dute, honako hauekin bat etorritik garatuko dena:

KLAUSULAK LEHENA- XEDEA

Hitzarmen honen bitartez, Beasaingo Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari gomendatzen dio (aurrerantzean AKADEMIA), Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko lanpostu baten hautaketa prozedura burutzeko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Eskatutako hautaketa prozedura gauzatzea Akademiak egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-korporazio desberdinetako beste batzuekin, elkarrekin eta bateratuta.

BIGARRENA.- DEITUTAKO LANPOSTUEN DESKRIPZIOA.

Hautaketa bateratuaren prozedurak, besteak beste, Beasaingo Udalerako, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente izateko lanpostu baterako eskaintza egiten du, 2. hizkuntza- eskakizunarekin.

Eskaintzen den lanpostuak 2 hizkuntza-eskakizuna izango du derrigortasun-datarekin, derrigortasun-data iraungita baitauka.

Eskaintzen diren lanpostuak Administrazio Bereziko Taldekoak dira, Zerbitzu Berezietako Azpitaldekoak, udaltzain klasekoak, C Sailkapen Profesionaleko Taldekoak, C2 Azpitaldekoak, 2018ko Lan-eskaintza Publikoari dagozkionak.

HIRUGARRENA. - KUDEAKETA GOMENDIOAREN NORAINOKOA.

Akademiak egingo ditu hautaketa prozedura gauzatzeko eta garatzeko izaera material edo teknikoko jarduera guztiak, baita ere Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian deialdi bateraturako oinarri espezifikoak argitaratu. Deialdi horiek eskainitako lanpostuen deskripzioaz gain, honako gai hauek izan beharko dituzte:

1. Beasaingo Udalean, hautaketa prozeduraren garapenean zehar, sortu daitezkeen Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriko lanpostu hutsen arabera deitutako lanpostuen kopurua handitzea, lege ezarritako terminoetan.

2. Parte hartzeko betekizunak honako hauetan ezarritakoak izango dira: Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretuan eta Euskal Herriko Poliziaren Hautapena eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan ezarritakoak.

3. Eskabideak aurkeztu behar diren azken egunerako, ezinbestekoak izango dira B eta A2 motako gidabaimenak egiaztatzea.

4. Eskabideak egiteko eta aurkezteko Akademiak horretarako jarriko duen prozedura elektronikoa erabili beharko da. Eskabideak aurkezteko epea deialdi bateratua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun baliodun baino gehiagokoa eta hogeita hamar egun baliodun baino gutxiagokoa izango da.

5. Akademiak Epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du hautaketa prozedura zehazteaz, garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena; baita ere, parte hartzaileen hautaketaz. Otsailaren 28ko Legean xedatutakoa aplikatuko zaion Epaimahai hori honakoek osatuko dute :

- AKADEMIKAK izendatutako mahaiburu bat.
- EULEK proposaturiko lau bokal. Bokal horiek deialdi bateratuan parte hartzen duten udaletako langileen artekoak izango dira (bi Udaltzainguko Kidegoetakoak eta beste biak funtzio publikoko edo giza baliabideetako funtzionarioak).
- Idazkaria, ahotsa duena, baina bozkatuko ez duena, AKADEMIKAK izendatutakoa.

6. Hautaketa sistema oposizio-lehiaketa ireki bitartez izango da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Hautapen eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

7. Proba teorikoak ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoari lotuko zaizkio, Toki Administrazioako funtzionarioen hautaketa prozedura lotu beharreko oinarrizko arauak eta gutxiengo programak ezartzen ditueneko Errege Dekretuan ezarritakoari.

8. Merituen lehiaketa-fasean Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa Udaltzainguko Kidegoetan egindako zerbitzuak baloratuko dira. Zerbitzu horiek oposizio

fasean lor daitekeen puntuazio handienetik gutxienez %25arekin baloratuko dira eta gehienez %30arekin.

9. Euskararen jakite-maila agiri bitartez egiazta daiteke edo prozesuak dirauen bitartean egingo diren proben bitartez. Euskara probak egiteko Akademiak HAEeko lankidetza izango du. Lehentasuna izango dute Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin duten lanpostuak betetzerakoan. Horrexegatik izango dira lehen esleituak. Euskara betekizun bat ez den lanpostuetarako honakoetan agertzen denarekin bat etorri baloratuko da: uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuko 11. artikuluekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan araututakoarekin bat etorri.

10. Epaimahaiak oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu beharko ditu.

11. Hautaketa prozesuari buruzko argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean jarriko dira. Informazio ondorioetarako Erakunde Autonomoaren Web orrialdean ere argitaratuko dira eta deialdi bateratuan parte hartzen duten Toki- korporazioei ere igorriko zaizkie. Epeen ondorioetarako erabakigarriak izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratzen direneko datak.

12. Eskumena duen Udalak behin baldintzak betetzen direla ziurtatuta, hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira.

13. Ezinbestean eta baztertzeko izaerarekin prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira, bakoitza bere aldetik, eta horiek gainditu ezean, hautagaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta deialdi honi dagokion Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak galduko ditu. Ezin izango dira batera egin, eta iraupena ez da 30 hilabetekoa baino gehiagokoa izango.

14. Prestakuntza-ikastaroa ikastaro akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzaileria, eta edukia, ebaluatzeko eta gainditzeko moduak, eta iraupena Ikasketa Planean eta arau aplikagarrietan zehaztuko dira. Prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu zortzigarren puntuan aurreikusitako moduan. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du ikastaroa gainditzen ez dutenak baztertzea.

15. Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute dagozkien Udaltzain Kidegoetan. Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, honako hauek ezarriko dituen: praktikaldiaren iraupena, hura baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikarako destinoak eta horietan hasteko data. Praktikaldian, hautagaiek Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriari dagozkion egitekoak betetzean erakusten duten eraginkortasun profesionala ebaluatuko da.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu praktikaldiko kalifikazioak.

Eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du, halaber, praktikaldia gainditzen ez dutenak baztertzea.

16. Praktikaldia bukatu ondoko bi hilabeteko epean, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, dagokion Udaleko Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa prozedura gainditu duten hautagaiak. Izendapena Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa egingo da.

17. Praktiketako funtzionarioek Udal bakoitzari dagokion araudian zehazturiko lanskariak jasoko dituzte. Halaber, dagokien Udalak eman beharko dizkie beren praktiketako funtzionarioei armak, dokumentazioa eta ekipamendua.

18. Praktiketako funtzionarioei Barne Araudiko Erregelamendua eta Akademiako barne araudia aplikatuko zaizkie. Halaber, diziplina-araubidearen arabera irakaskuntza arloko diziplina-hutsegite hutsak ez diren egoeretan Euskal Herriko Polizia Kidegoen diziplina- araubidearen arauak aplikatuko dira. Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zigor bat jasotzea arrazoi espezifikoa izango da hautaketa prozeduratik kanpo geratzeko, lehen aipatutako arauekin bat etorritik, eta Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko eskubideak prozesu horretatik eratorriak galtzeko.

19. Prestakuntza-ikastaroari aplikatu ahal zaizkion ebaluazio-irizpideekin bat etorritik, Ikasketa Planean bildutako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada hautagairen batek prestakuntza-ikastaroa gainditzeko ezintasun materiala duela, dagokion Udaleko Alkatetzak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, prozesutik kanpo utzi dezake, betiere kasuan kasuko praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.

20. Prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian hautaketa prozeduratik baztertutako pertsonak dagokien Udalari bueltatu beharko dizkiote armak, dokumentazioa edo emandako edozein ekipa.

21. Hautaketa prozedura gainditzen duten pertsonak, dagokion Udaleko Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa.

LAUGARRENA.- GOMENDIOAREN TERMINOAK

Beasaingo Udalak:

- a) Eskumenen titulartasuna mantenduko du. Eskumen horiek betetzea kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honen bitartez egitea gomendatzen da.*
- b) Hautaketa prozesuari dagokion Lan-eskaintza Publikoa onetsiko eta argitaratuko du.*

Hori deialdi bateratua argitaratu baino lehen egin beharko du.

- c) *AKADEMIARI bidali beharko dio beharrezko informazioa eta prozesuaren garapen zuzenerako beharrezko materialaren lankidetzaz emango dio.*
- d) *Behin hautaketa fasea amaituta deitutako lanpostuetara esleituta dauden pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu eta hautaketa prozesua amaituta karrerako funtzionario izendatuko ditu.*
- e) *Deialditik sortutako gastuen finantzaketan lagunduko du, bosgarren klausulan ezarritakoaren arabera.*

AKADEMIAK, hirugarren klausulako terminoetan gomendatutako jardueraz gain, honako hauek izango ditu bere kargura:

- a) *Ariketen garapen materialerako beharrezko operatiboa kudeatuko du: Tokien kontratazioaren kudeaketa; hautaketa probak egiteko tokiak hornitzea; hautaketa prozesurako zaintzaileak kontratatzearen kudeaketa; oposizio-proben itzulpena eta erreproduktzioa; Proba-egunean probak banatzea eta biltzea; halako jendetza parte hartzen ditueneko hautaketa prozesu bat zuzentasunez gauzatzeko beharrezko diren jarduerak egitea: aparteko beharrezkoak dituzten pertsonen zainketa-lana eta laguntza, etab.*
- b) *Hautaketa prozesuak eraginkortasunez eta berdintasun, merituz, ahalmen eta publikitate printzipioak zorrotz errespetatuz prozesuak ondo gauzatzeko baliabideak bideratuko ditu, aldi berean, izaera pertsonaleko datuei buruzko indarrean dagoen araudia errespetatuz.*

BOSGARRENA.- FINANTZIAZIOA

Akademiak ordainduko ditu kudeaketa gomendiotik sortutako gastuak.

Beasaingo Udalak ordainduko die oposizio fasea gaindituta destinoa aukeratu duten praktiketako agente izendatutako pertsonen, udalak daukan aplikazio-araudiarekin bat etorritik, prestakuntza eta praktikak iraun bitartean. Aldi berean, armak, dokumentazioa eta beharrezko ekipoak eman beharko dizkie.

SEIGARRENA.- EBAZPENA

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau bi aldeek ebatzi ahal izango dute aldez aurretik beste aldeari gutxienez sei hilabete lehenago jakinarazten bazaio, eta ebazpena ematen den momentuan martxan dauden jarduerak edozein kasutan ere jarraitu egin beharko dutela bermatuko da. Ebazpena jakinarazten denetik hasita hamabost egunetara indarrean sartuko da, bestelako akordiorik izan ezean.

Honako hauek izango dira kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honen ebazpenaren kausak:

- A) *Edozeinetako bi aldeek salaketa.*
- B) *Hitzarmen honen klausulak ez betetzea.*
- C) *Bi aldeek elkarren arteko adostasuna.*

ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau sinatzen denetik hasita indarrean izango da urte baterako. Hori bai, urte bateko epe hori amaitu baino lehen, bi aldeek erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea eskainitako lanpostuak beteko dituzten pertsonak karrerako funtzionario izendatu arte.

ZORTZIGARRENA.- IZAERA ETA JURISDIKZIOA

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta, bere interpretaziotik eta betetzetik sor daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzien ordenaren eskumenarekin bat etorritik ebatziko dira.

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau bi aldeek irakurri ondoren eta hitzarmenean agertzen denarekin adostasuna eman ondoren, ale bikoiztuan sinatzen dute, goian azaltzen den tokian eta datan, eta honetan agertzen diren klausulekin bat etorritik.

BEASAINGO UDALEKO ALKATEA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Bigarrena. - Beasaingo Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

Hirugarrena. - Onartutako erabakia Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia bidaltzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da ezer berezirik adierazi

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

9.- EUSKALTEGIA. Euskaltegiko Fundazio Batzordeko erabakia berrestea, Zuzendariaren izendapenari buruz.

Udal Euskaltegiko Gobernu Batzordeak 2017-11-16an hartutako erabakia, M^a PAZ MARTIN ORIO andrea udal Euskaltegiko zuzendaritza karguan, 2019-12-26arte jarraitzeari buruzkoa, aho batez berretsi da.

10.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2018ko apirilaren 23tik 2018ko maiatzaren 26ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2018ko apirilaren 23tik 2018ko maiatzaren 26ra bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

11.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hamahiru minututan amaitu da eta nik, idazkaria naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.